

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

236/2019 Foru Agindua, maiatzaren 21ekoa. Onestea nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzen 2019rako deialdia

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuaren bidez, nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu ziren, Landa Garapenerako 2007-2013ko Planaren barruan LGNEFk finantzaturako laguntza moduan.

Landa Garapenerako Plan hori amaitu zenean, laguntzak ez ziren 2015-2020ko LGParen barruan sartu, eta nazioko laguntzatat jo ziren. Horretarako, ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretua aldatu zen, Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 64/2016 Foru Dekretuaren bidez.

Oinarri arautzaileen foru dekretu horretan aipatzen ziren, batetik, laguntzen baldintzak arautzen dituzten Europako eta erkidegoko arautegia, dagoeneko indargabetuta dagoena, eta, bestetik, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua. 30/1992 Legea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak indargabetu zuen -indarrean 2016ko urriaren 2tik-, eta, 3/1997 Foru Araua, aldiz, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak -indarrean 2016ko urriaren 29tik-. Hori dela eta, oinarri arautzaile horiek eguneratu egin ziren.

Ekainaren 5eko 24/2018 Foru Dekretuaren bidez, aldaketak egin ziren nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzak arautzen dituzten oinarrietan, zeinak Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuaren bidez onartu baitziren eta Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 64/2016 Foru Dekretuaren bidez aldatu.

Bestalde, Aldundiaren 2018ko gastu aurrekontu 2019ra luzatua bada laguntza horietarako partida bat, "Aholkularitza zerbitzuak erabiltzea" izenekoak, 60.000,00 euroko zuzkidura duena.

Nekazaritza Garapeanren Zerbitzuak proposatzen du onestea nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzen 2019rako deialdia.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea, 2019. urterako, dirulaguntza horietarako deialdia, honako ezaugarri hauekin:

– Eskerak aurkezteko tokia: Aldundiaren Erregistro Orokorra. Hori ez da oztopo izango urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko.

– Eskerak aurkezteko epea: 30 egun natural, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

– Kreditu erreserba: 60.000 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2018ko gastu aurrekontu 2019ra luzatuaren 40.1.01.42.01.481.00.01 "Aholkularitza zerbitzuak erabiltzea" partidaren kontura.

– Arabako Foru Aldundiaren funtsetatik, eta haren funtsetatik baino ez, emango dira laguntzak.

Bigarrena. Aurten, laguntza lerro honetarako deialdia egiten da 2018an egindako aholkularitza zerbitzuetarako, eta 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egindako gastuak onartuko dira diruz laguntzeko moduko gastu bezala.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 21a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE